



Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa: III. Eranskina EMEKIN-BIDERAGARRITASUN PLANA

Urtea: 2024 | Ekonomia Sustapena

Deskribapena

Enpresak sortzeko prozesuan emakumeek sustatutako enpresa-proiektuei laguntzeko dirulaguntzak.

Dirulaguntzak **GAUZAZKO LAGUNTZATZAT** hartuko dira, eta pertsona onuradunari eskubidea emango zaio enpresak sortzeko prozesuan laguntza jasotzeko.

Pertsona onuradunak

Gipuzkoan abian jarriko den enpresa bat sortzeko asmoa duten emakumeak, edozein dela ere hartzen duten forma juridikoa, eta gutxienez enplegu bat sortzeko aurreikuspena dutenak.

Diruz lagunduko diren jarduerak

Bideragarritasun plana: pertsona edo talde sustatzaileari, ideia ontzeko eta bideragarritasun planaren eratzeko prozesuan laguntzeko ekintzak, Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak [homologatutako entitateen](#) bidez.

Enpresa sortzeko aholkularitza-zerbitzuak ematerakoan, proiektu bakoitzeko gehienez ere 25 orduko ordu-dedidazio hautagarria aurreikusten da bideragarritasun-planerako.

Dirulaguntzak emateko prozedura

Lehiarik gabekoa: dirulaguntzak aurrekontuko zuzkidurak amaitu arte emango dira, eskaerak jaso diren ordenaren eta eska dakiekeen informazio gutzia bete izanaren arabera.

Dirulaguntzen arteko bateragarritasuna ala bateraezintasuna

Dirulaguntza hauek **ez dira bateragarriak** izango beste edozein administrazio edo erakunde publiko edo pribatu, nazional, europar edo nazioartekok xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin.

Bete behar diren epeak:

- **2024/01/01- 2024/06/30 bitartean hasitako proiektuak:**

Eskaera egiteko epea: 2024ko uztailaren 11raino, 13:00etan.

Gauzatzeko epea: 2024ko urtarrilaren 1etik irailaren 30eraino.

Justifikatzeko epea: 2024ko irailaren 30raino.

- **2024ko uztailaren 1etik 2024ko azaroaren 30ra bitartean hasitako proiektuak:**

Eskaera egiteko epea: 2024ko abenduaren 10eraino, 13:00etan.

Gauzatzeko epea: 2024ko uztailaren 1etik 2025ko martxoaren 31era.

Justifikatzeko epea: 2025ko apirilaren 7raino.

Araudi aplikagarria

[«Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa»ren oinarri arautzaileak deialdia.](#) Programa hori Diputatuen Kontseiluaren 2022ko ekainaren 21an erabakiz onartu zen (2022ko uztailaren 4koa GAO, 126 zk).

[«Enpresak sortu eta garatzeko prozesua sustatzeko programa»ren 2024ko deialdia.](#) Programa hori Diputatuen Kontseiluaren 2024ko apirilaren 30eko erabakiz onartu zen (2024ko maiatzaren 13ko GAO, 91 zk).

Eskaera egiteko urratsak

- Informazioa eta dokumentuak → <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/ekintzaitasuna/emakumeekintzailea>
- Dirulaguntzak kudeatzeko aplikatiboa → <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>

Edozein zalantza izanez gero, kontsultatu

EKONOMIA SUSTAPENeko zerbitzua

Telefonoak:

- Kudeaketa teknikoa: 943–112287
- Kudeaketa Administratiboa: 943–113770

Emaila: sustapena.ekintzaitasuna@gipuzkoa.eus